

## **2001eko ABENDUAREN 20ko BILKURA NAGUSIA**

Lizartzan, bi mila eta bateko abenduaren hogeian, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ana Ederra Irurzun, Antton Balerdi Garmendia, Nerea Altuna Zubeldia, Lurdes Altuna Arritegi, Lontxo Goikoetxeaundia Martinez, Xabier Balerdi Urdampilleta; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

### **1.- AURREKO AKTEN ONARPENA:**

Alkateak, aurreko saioen aktei ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu dira.

### **2.- "LIZARTZAKO,"A-4 ZONALDEAREN OSAGAIEI DAGOKIEN ARAU ORDEZKATZAILEEN ALDAKETA"REN LEHEN ONARPENERAKO PROPOSAMENA**

IKUSIRIK.- LIZARTZAKO UDALAK eskatutako, PILAR AZURMENDI ETXEGARAI Arkitektuak osatutako "Lizartzako A-4 Zonaldearen Osagaiei dagokien Arau Ordezkatzaileen Aldaketa"rako agiriak ikusirik.

KONTUTAN HARTUAZ.- 2001eko .Abenduaren 15ean amaitu zela, Proiektuaren Aurrerapena jendaurrean egoteko epea, inolako iradokizunik aurkeztu ez delarik.

Guzti horregatik, Udal Batzarrari, zera proposatzen zaio:

- 1.- Lizartzako Udalak aurkeztutako, "Lizartzako A-4 Zonaldearen Osagaiei dagokien Arau Ordezkatzaileen Aldaketa" ren agiriari, lehen onarpena ematea.
- 2.- Agiri hori jendaurrean jartzea, hilabeteko epean, hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala eta egunkari batean argitaratzen den azkenenego datatik kontatuko delarik.

"Lizartzako A-4 Zonaldearen Osagaiei dagokien Arau Ordezkatzaileen Aldaketa"ren lehen onarpenerako proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, gehiengo absolutuaren "quorum"arekin, aho batez onartua izan da.

### **3.- A-4 EREMUKO LURREN EROSKETA**

Udal honek onarturiko, Pilar Azurmendi Etxegarai Arkitektoak eginiko, Lizartzako A-4 Zonaldearen Osagaiei dagokien Arau Ordezkatzaileen Aldaketa Proiektuaren barruan, Etxebizitzak eraikitzeko, hainbat terrenoen okupazioa azaltzen denez, Batzar hau osatzen duten guztien adostasunez, aho batez, terreno hoi erosteta erabakitzen da, era honetan:

1.- Lizartzako A-4 Zonaldearen Osagaiei dagokien Arau Ordezkatzaileen Aldaketa Proiektuaren barruan, Etxebizitzak eraikitzeko, Lizartzako Herrian kokatuta dauden, terreno hauek erostea onartzen da:

- a) M. Francisca Balerdi Iturrioz, M. Trinidad Arzadun Balerdi eta M. Luisa Arzadun Balerdi Andreei, "El terreno sembradío antes GARROCELAY y ahora ECHEAZPIA, que forma parte del terreno del mismo nombre y confina por Este, con porción segregada para venta al Ayuntamiento de Lizartza; Oeste, con el río Araxes; Sur, con terreno de Zuloaga; y Norte, con camino. Contiene después de segregación ocho áreas diecisiete centiáreas." deskripzioa duen terrenoa, Tomoa: 1623, Liburua: 26, Orria: 206, Finka: 39-N erregistroko zenbakiarekin, gaur egun egindako neurketa perizialaren arabera, 820,71 m<sup>2</sup> dituena.
- b) Juana Josefa EizaguirreTrecu Andrearen, "Parcela de terreno en jurisdicción de Lizartza, destinada a aparcamiento, contiene después de segregación, trescientos cuatro metro y seis centímetros cuadrados, que linda: Norte y Oeste, resto de finca matriz; Sur, Trinidad Arzadun, y Este, carretera y resto de finca" deskripzioa duen terrenoa. Tomoa: 1341, Liburua: 23, Orria: 69, Finka: 1152 erregistroko zenbakiarekin.

c) Jose Eizaguirre Trecu eta Maria Vicenta Echeverria Jaun/Andreen, "Parcela de terreno en jurisdicción de Lizartza, destinada a aparcamiento, que linda: Norte, Este y Oeste, resto de finca matriz, y Sur, Trinidad Arzadun.- Tiene treinta y dos metros cuadrados". deskripzioa duen terrenoa. Tomoa: 1929, Liburua: 29, Orria: 18, Finka: 1373 erregistroko zenbakiarekin.

2.- Saltzaileekin ados, terrenoen prezioa, metro kuadroko, ZAZPI MILA (7.000,-) peztatan jartzea erabakitzen da.

Honenbestez, salerosketako kontrato bakoitzaren salneurriak, hauek dira:

a) Lizartzako A-4 Zonaldearen Osagaiei dagokien Arau Ordezkatzaileen Aldaketa Proiektuaren barruan, Etxebizitzak eraikitzeko, M. Francisca Balerdi Iturrioz, M. Trinidad Arzadun Balerdi eta M. Luisa Arzadun Balerdi Andreei erositako lurrengatik, BOST MILIOI ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA LAU MILA BEDERATZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR (5.744.970,-) Pezta (34.527,97,-) Euro.

b) Lizartzako A-4 Zonaldearen Osagaiei dagokien Arau Ordezkatzaileen Aldaketa Proiektuaren barruan, Etxebizitzak eraikitzeko, Juana Josefa Eizaguirre Trecu Andreari erositako lurrengatik, BI MILIOI HIRUEHUN ETA BERROGEITA HAMASEI MILA SEIEHUN ETA HOGEI (2.356.620,-) Pezta (14.162,97,-) Euro.

c) Lizartzako A-4 Zonaldearen Osagaiei dagokien Arau Ordezkatzaileen Aldaketa Proiektuaren barruan, Etxebizitzak eraikitzeko, Jose Eizaguirre Trecu eta Maria Vicenta Echeverria Luluaga Jaun/Andreei erositako lurrengatik, ZORTZIEHUN ETA HAMAR MILA (810.000,-) Pezta ( 4.868,20) Euro.

3.- Salerosketa honen kostuak, ez du, Aurrekontuaren %5 gainditzen.

3.- Aurreago onartu diren sal-erosketa hitzarmenek behar dituzten jendaurreko eta norbanakako agiriak emateko, Udaleko Alkate-Lehendakaria den, Jose Antonio Mintegi Arrate Jaunari, ahalmenak ematea, erabaki da.

#### **4.- U-1 INDUSTRI GUNEKO SISTEMA ALDAKETAREN BEHIN BETIKO ONARPENA**

Udal honek, 2001eko Urriaren 29an eginiko Bilkura Nagusian, U-1 Industrialeko Gestio Sistema Aldaketa, hau da, Kooperazio Sistematik, Konpentsazio Sistemara aldatzea, erabaki zuen.

Erabakia, jendaurren, hamabost eguneko epean egon ondoren, ez da inolako iradokizunik jaso.

Horren arabera, U-1 Industri Guneko Sistema Aldaketari, behin betiko onarpena ematea, aho batez erabaki da, gestio sistema, KONPENTSAZIOA geldituaz.

#### **5.- 2001 URTEKO AURREKONTUAREN 3. KREDITU ALDAKETA**

Lizartzako Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko otsailaren 26ko 4/1991 Foru Arauaren 34. artikuluan eta Udal Entitateen Aurrekontu Erregelamendua onesten duen abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuaren 40. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasuneko Informazio Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespenez proposamena irakurri dira.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratuen aho batez, honako hau

## ERABAKI DA

**Lehenik.-** Lizartzako Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

### KREDITU GEHIKUNTZAK

Aurrekontu- Partida	Kontzeptua	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin- Betikoak
131.129.02.01	Garbitzailearen Ordezkoa	276.924	211.997	488.921
131.313.09.01	Gizarte Laguntzailea	-----	252.628	252.628
160.129.02.01	G.S. Garbitzailea-Ordezkoa	728.197	3.582	731.779
160.129.03.01	G.S. Peoia	1.112.717	2.481	1.115.198
160.313.01.01	G.S. E.E.L.	299.557	13.291	312.848
226.121.01.04	Asesoritza Juridikoa	1.700.000	596.184	2.296.184
226.432.01.04	Arkitektoa	1.500.000	30.857	1.530.857
332.010.01.01	Maileguen Interesak	658.330	139.065	797.395
332.010.01.02	Maileguaren Haserako Gastuak	-----	25.000	25.000
421.121.01.01	Udalbiltza	250.000	502.000	752.000
421.442.01.01	Tolosaldeko Mankomunitatea	342.740	196.530	539.270
421.446.01.01	Tolosaldeko Autobusen Kontzesioa	260.653	25.219	285.872
421.459.01.01	Eudima	56.430	86.330	142.760
421.711.01.01	Tolosaldeko Mendi Nekazaritza	435.287	268.050	703.337
600.449.01.01	Lurren Erosketa A-4	6.975.200	4.697.190	11.672.390
622.313.08.01	Gizarte Gunea	26.052.816	1.702.108	27.754.924
933.010.01.01	Maileguaren Amortizazioa	3.402.562	19.741	3.422.303
<b>GUZTIRA</b>		<b>44.051.413</b>	<b>8.772.253</b>	<b>52.823.666</b>

### KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Sarrerren	Baliabidearen Kontzeptua	Sarrera	Baliabidearen
-----------	--------------------------	---------	---------------

<b>kontzeptuak edota gastuen partidak</b>		<b>Handiagoak/ Gastuetako bajak</b>	<b>Partziala</b>
600.449.01.99	Lurren Desjabetzak	- 810.000	7.607.100
601.511.01.01	Inbertsioak	- 4.489.298	18.274.351
112.000.00.02	Ondasun Higiezinaren Hiritarrak	1.761.909	611.046
113.000.00.01	Ibilgailuen Zerga	129.567	5.169.567
310.000.00.01	Zabor eta Hiri Hondakin Solidoen Tasa	252.500	1.372.500
310.000.00.09	Udal Ur Hornidura	211.188	1.913.588
310.000.00.16	Udal Antolatutako Ekintzengatik Sarrerak	143.745	843.745
396.121.02.02	Gizarte Segurantzako Konpentsazioak	363.000	363.000
401.313.09.01	Inem. Langileen Kontratazioa	611.046	611.046
<b>GUZTIRA</b>		<b>6.862.253</b>	<b>6.862.253</b>

**Bigarren.-** Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

## **6.- LEHEN ERABILERA KO BAIMEN ESKAERA. J.A. ALTUNA**

Jose Antonio Altuna Arruabarrena Jaunak, Aldai Etxearen Jabeak, 1998ko Irailaren 23ko Alkatetzaren Dekretuaren bidez emandako obra baimenaren arabera eginiko Aldai Etxearen Lehen Erabilpen baimena eskatu du.

Udaleko Teknikoek aldeko txostenak luzatu dituzte.

TRLS.ko 242.2 eta RDU.ko 1-10 artikuluek diotenaren arabera, PROPOSATZEN DA:

Udal honek dituen konpetentzien barnean, eta beste Erakundeei dagozkienaren kalterik gabe, eskatutako lehen erabilera ko baimena ematea.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

## **7.- TASA ETA PREZIO PUBLIKOAK, EURO-RA EGOKITZEA**

Udal honek kobratzen dituen tasa eta Prezio Publikoak, Eurora egokitu beharra dago.

Horren arabera, honela geldituko lirateke:

<b>IBILGAILU MOTA</b>	<b>TRAMOAK</b>	<b><u>TARIFAK</u></b>
TURISMOAK	9 ZF. Baino gutxiago	25,24
	9tik 11,99 ZF. Bitarte	50,49
	12tik 13,99 ZF. Bitarte	84,14
	14tik 15,99 ZF. Bitarte	117,80
	16tik 19,99 ZF. Bitarte	151,46
	20 ZF. Gorakoak	185,11
AUTOBUSAK	21 eserlektik beherakoak	116,62
	21etik 50 bitartekoak	166,10
	50etik gorakoak	207,62
KAMIOIAK	1000tik kg.ko erabilgarririk beher	59,19
	1000tik 2999 bitartekoak	116,62
	2999tik 9999 bitartekoak	166,10
	9999tik gorakoak	207,62
TRAKTOREAK	16 ZF. Beherakoak	24,74
	16tik 25 bitartekoak	38,87
	25tik gorakoak	116,62
REMOLKE ETA ERDI REMOLKEA.	750tik 1000 bitartekoak	24,74
	1000tik 2999 bitartekoak	38,87
	2999tik gorakoak	116,62

ZIKLOMOTOREAK		6,18
MOTOZIKLETAK	125 c.c. bitartekoak	6,18
	125tik 250 bitartekoak	10,60
	250tik 500 bitartekoak	21,20
	500tik 1000 bitartekoak	42,41
	1000tik gorakoak	84,81

URA  
ETXEAK

Hiruhilabetean            36 m<sup>3</sup> x 0,15 euro/m<sup>3</sup>  
                                     36 m<sup>3</sup>tik gora – 0,21 euro/m<sup>3</sup>

TABERNAK, DENDAK eta INDUSTRIAK

Hiruhilabetean            45 m<sup>3</sup> x 0,21 euro/m<sup>3</sup>  
                                     45 m<sup>3</sup>tik gora – 0,27 euro/m<sup>3</sup>

INFRAESTRUKTURA KANONA

Hiruhilabetean            4,81 euro erreziboko

KONTAGAILUEN MANTENIMENDUA

Hiruhilabetean            1,20 euro erreziboko

SAREARI LOTUNEA

**Lotune Eskubidea:            45,08 euro**  
Berlotune Eskubidea:        90,15 euro

ZABOR BILKETA

Etxebizitzak   habitatuak eta hutsak- Hiruhilabetean    9,02,- euro  
Industriak - Hiruhilabetean                                    15,03,- euro

AEROBIC:    15,03



GIMNASIA: 12,02

PELOTA: 4,51

FRUTA POSTUA: 5,41

FOTOKOPIAK: 0,05

FAX: 1go Orria: 1,20 - Estatura: 1,65  
2go Orria: 0,60 - Estatura: 0,90

HILERRIA: 60,10

## **8.- ALKATETZAREN DEKRETUAK**

### **CASIANO IBARGUREN**

Ibilgailua aparkalekuan uzteko ezinduentzako txarleta ematea erabaki da.

### **ARANTXA ARROSPIDE**

Zubiaurre Etxea, behea ezker aldean dagoen etxebizitzan barruko distribuzioa, komungela aldatu eta fatxadan berrikuntza obrak egiteko baimena, baldintza hauekin:

Obra hasi baino lehen, egin nahi den estalduraren izaera eta neurriak azaltzen dituen planua ekarriko da.

Behin obrak hasi ondoren, hauek ez badira burutzen emandako informazioaren arabera eta fatxadan, egitura edo instalakuntza nagusietan eragina badute, arkitekto batek sinaturiko eta Elkargo Ofizialak bisatutako proiektua eskatuko da obra baimentzeko.

Behin obra bukatuta, antolakuntza berriaren oinplanua aurkeztea eskatzen da.

## MARIANO URBIZU ZABALA

2. Polignoan kokatuta dagoen 15 zenbaki duen partzelan ireki nahi den bidea egiteko baimena, baldintza hauekin:

- Obrak hasi aurretik urak isurtzeko tartea 30 metrora finkatu beharko dira.
- Bidearen zabalera, gehienez 3 metrokoa izango da.

## EUSKAL NAZIOTASUN AITORPENAREN ERREKURTSOA

**IKUSIRIK, 2001eko Urriaren 5eko ebazpena E.A.E. Auzitegi Nagusiak** diktatua, **Prozedura: PROZEDURA ARRUNTA 29/1998 LEGEA 1398/01, ESPAINIAR ESTATUKO ABOKATUAK** aurkeztu du Lizartzako Udalak 01-4-15ean hartutako erabakiaren aurka. Ebazpen horren bidez Euskal Naziotasun Aitorpenaren inguruko mozioa onartu zen.

**GERTATURIK, 2001eko Urriaren 5eko** Ebazpenak udal honi agintzen diola Epategi horri bidaltzea espediente administratibo originala eta baita ere Jurisdikizio Kontentzioso Administratiboaren Lege Arauemaileko 49.1 artikulua agintzen duenaren arabera jakitera ematea 5 eguneko epe barruan Ebazpena bidaltzea non erabakitzen den espediente administratiboa bidali behar zaiela bertan interesatu bezala agertzen direnei, **BEDERATZI EGUNEN BARRUAN** Autoetan azaldu eta pertsona daitezela exijituz.

**GERTATURIK,** espediente honetan interesatu bezela LIZARTZAKO BIZILAGUN GUZTIAK agertzen direla.

**KONTUAN IZANIK,** Alkatetza hau kompetentea dela agindu zaion izapidea burutzeko Erregimen Lokaleko Oinarrien Lege Arautzailean aitortzen zaizkion kompetentzien arabera.

**IKUSIRIK**, aipatu testu legalak eta aplikatzekoak diren gainerako arauak

## **LIZARTZAKO UDALEKO ALKATETZA HONEK**

### **ERABAKI DU**

**LEHENENGO.-** LIZARTZAKO herritarrak epatzea **BEDERATZI EGUNEKO** epean azaldu eta pertsona daitezen erreferentziazko Autoetan.

**BIGARREN.-** Ebazpen honetako azalpen partean aipatzen den espediente administratiboa Nafarroako Justizi Auzitegi Nagusira bidaltzea, **2001eko Urriaren 5eko** aipatu Epaitegiaren Ebazpenak agintzen duenaren arabera.

**HIRUGARREN.-** Ebazpen honen berri Plenoari ematea ospetuko duen lehenego batzaraldian.

### JON BARRIOLA ARTOLA

Zubiaurre Etxea, 3. Ezk.eko etxe barruan konponketa lanak egin eta leiho berriak jartzeko baimena, baldintza hauekin:

Leiho berriak, etxebizitzan jadanik daudenen tankerakoak edo itxura berekoak izan beharko dute, fatxadaren konposaketa mantentzeko.

Behin obrak hasi ondoren, hauek ez badira burutzen emandako informazioaren arabera eta fatxadan, egitura edo instalakuntza nagusietan eragina badute, arkitekto batek sinaturiko eta Elkargo Ofizialak bisatutako proiektua eskatuko da obra baimentzeko.

Behin obra bukatuta, antolakuntza berriaren oinplanua aurkeztea eskatzen da.

## EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA ORDEZKARITZA

Juan XXIII. Herri Eskolan, eraberritze lanak burutzeko baimena, baldintza hauekin:

Behin obrak hasi ondoren, hauek ez badira burutzen emandako informazioaren arabera eta fatxadan, egitura edo instalakuntza nagusietan eragina badute, arkitekto batek sinaturiko eta Elkargo Ofizialak bisatutako proiektua eskatuko da obra baimentzeko.

Behin obra bukatuta, antolakuntza berriaren oinplanua aurkeztea eskatzen da.

### **9.- MOZIOAK**

#### **TRATU TXARRAK ETA ERASO SEXUALEI BURUZKO EKIMEN INSTITUZIONALAK**

Biolentzia sexistari dagokionez, argi dago zelako egoera bizitzen ari garen gaurko gizartean. Emakumeak historian zehar eta esparru sozial ezberdinetan jasotzen duten eraso sexual eta tratu txarrak dira, sexuen arteko ezberdintasunaren adierazpenik gorena. Zoritxarrez, hauxe da, gaur egun ere, emakumeek nozitzen duten egoera.

Une honetan, tratu txarreatatik egiten den salaketa kopurua gutxitu den arren, eta hau errealitatean ematen ari diren kasuen ispilua ez direla kontuan hartu behar badugu ere, 1999 urtean egondako hilketa bortitzen kopurua 1998 urtean izandakoa baino handiagoa izan da %50ean.

Argi dago ere, behintzat teoriari dagokionez, instituzio ezberdinetatik sexu ezberdinen arteko berdintasun efektibo bat bermatzeko ahaleginak egiten ari direla, ondorioz emakumeek jasotzen dituzten tratu txarrak eta eraso sexualen kasuetan eragin zuzuena izan beharko luketelarik.

Bide honetan 1999ko abenduan, Eusko Jaurlaritzan bai tratu txarrak eta erasoak baita sexuen arteko berdintasuna ere lantzeko neurri zehatz batzuk aprobatu ziren. Aprobaturako puntuaren artean Gasteizko Legebitzarrak baino haratago joaten diren batzuk daude, Udalei zein Diputazioei ere dagozkienak.

Akordio hau oinarri bezala hartuta eta Udalei zuzenean dagokien 8. puntuaren aplikazioa alde batera utziz, gaur egun dagoen egoerari aurre egiteko politika aktibo eta eraginkor bat burutzeko interesgarri izan daitezkeen zenbait puntu aplikatzeari derrigorrezkoa deritzogu, arlo honetan eman behar den konponbide sakonera ailegatzeko lanean ari garen bitartean.

Honegatik guztiagatik, akordio hau proposatzen dugu.

- 1.- Lizartzako Udalak urgentzia sozialen zerbitzu bat jarriko du martxan, bertan egun edo gaueko edozein ordutan, jaieguna edo laneguna izanda, tratu txarrak jasotzen duten biktimen berehalako atentzioa bermatuko da, harrera eta instantzia ezberdinen arteko koordinazioa erraztuz (osasunerakoak, polizialak, judizialak eta asistentzialak). Era berean, tratu txarrak aparte, osasunarekin erlazioantuta diren beste arazo batuk agertzen dituzten kasuetarako programa bereziak jorratzea bermatuko da.
- 2.- Lizartzako Udalak, tratu txarren kasuan jarduera protokolo baten aplikazioa eta martxan jartzea eta eraginkor batean ziurtatuko du.

Tratu txarrak eta eraso sexualei buruzko ekimen instituzionalei buruzko mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez, onartzea erabaki da.

#### JOSE IGNACIO GOIKOETXEA ARANDIA

Jose Inazio Goikoetxea Arandia gaixo aurkitzen da Lugoko espetxean eta idatzi honen bidez, Lizartzako Udalarari zera eskatzen diogu:

Jose Inazio Goikoetxea Arandia bere mingaineko tumorea dela eta, egin behar zaion ebakuntza, Donostia Ospitalean egin diezaioten, Martutenera

berehala trasladata izan dadineko agindua eman dezala eskatzea A Coruñako espetxeko zaintza epaileari.

Jose Inazio Goikoetxea Aranadiari buruzko eskaera, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez, onartzea erabaki da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamarrak eta erdiak direnean.